


MILAKA UME **MUTURREKO POBREZIA** ETA  
**GOSETIK** ALDENTZEKO BORROKATZEN ARI DIRA

**BATU ZAITEZ ALDAKETARAKO**



**GH kanpaina 2018-2019**  
**LEHEN HEZKUNTZA 4.a, 5.a eta 6.a**  
**NATURA-ZIENTZIAK**



# GAIA: Natura Zientziak

## UNITATEAREN IZENBURUA: Nire jakiak, zureak, haienak

### DENBORALIZAZIOA: 5 saio

#### 1.- SARRERA

Elikadura oinarri-oinarrizko giza eskubidea da, baina ez dago guztien eskura. Bost urtetik beherako haurren heriotzen erdiak elikadura-urritasunaren ondorio dira. Lurrean ekoizten diren elikagaiak aski dira munduko biztanle guztiak elikatzeko, baina horien kontsumoan egiten den erabilera desegokiaren, gerren eta kudeaketa politika txarren ondorioz, elikagaiak ez zaizkio iristen jende guztiari. Gure ikasleak ez dira jabetzen horretaz, mota guztietako elikagaiak oso eskura baitituzte. Arazo horretaz gogoeta eginaraziko diegu, eta arazoari eman diezazkioketen irtenbideez pentsatuko dute.

#### 2.- HELBURU DIDAKTIKOAK.

Ikasleei ikusaraztea beren bizitzetan elikadurak zer-nolako garrantzia duen, bai eta elikadura-urritasunak muturreko pobrezia jasaten duten haur askorengan zer eragin dituen ere.

#### 3.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK


AUTOEBALUAZIOA: taldekide bakoitzak bere lantaldean izan duen parte-hartzea eta laneko inplikazioa ebaluatuko ditu.

KOEBALUAZIOA: taldekideek elkar ebaluatuko dute.


HETEROEBALUAZIOA: egindako lanaren azken emaitza ebaluatuko du irakasleak.

#### 4.- JARDUERA ESTANDARRAK ETA PROPOSATUTAKO ZEREGINAK.





## 1. JARDUERA: Elikagaien piramidea



**DENBORA:** 50 minutu

**JARDUERA MOTA:** “Piramide birakaria”

**HELBURUA:**

Jaten ditugun janarien garrantziari buruzko gogoeta sustatzea.

Gure ikaskideen errespetua eta haiei entzuteko jarrera sustatzea.


**MATERIALA**

Piramidearen eta animalien argazkiak.

Guraizeak, kola.

Lankidetzako taldeak, lau ikaslekoak gehienez.





## **GARAPENA**

Piramide handi bat jarriko da ikusgai, askotariko elikagaiekin, eta elikagai horiek piramidean dagokien tokian kokatu behar dituztela esango zaie.

Talde bakoitzari banatuko zaion piramide batean egingo dute hori.

“Orri birakaria” balitz bezala egin beharko dute.

Amaitzean, egindakoa bateratuko dute, eta piramide erraldoia osatuko dute ikastalde osoaren artean, gai osoan zehar ikusgai edukitzeko.

Pertsonaren garapenerako jaki bakoitzak duen garrantzia azalduko da.

## **2. JARDUERA: Gogoeta**

**DENBORA:** 50 minutu

**JARDUERA MOTA:** argazkia, bideoa, horma-irudia  
Ikusi, pentsatu, galdetu (1-2-4)

### **HELBURUA:**

Ikusitako irudiei buruzko gogoeta sustatzea.

Besteen iritzien errespetua eta horiek entzuteko jarrera sustatzea.

### **MATERIALA**

Bideoa: giza familia bakarra. Guztiontzako elikagaiak.

Gogoetak biltzen dituen pentsamendu-errutinako orria.

## **GARAPENA**

Taldekide bakoitzak pentsamendu-errutinako orri bat izango du, eta osatu egingo du bideoa ikusi ondoren, lankidetzaren teknika erabiliz.

Bideoa ikusiko dute ikasleek, eta lehen zutabea osatuko dute (ikusitako irudiei buruzko inolako gogoetarik adierazi gabe).


Gero, bikotekidearekin partekatuko dute taldean, eta, azkenik, talde osoan bateratuko dute, guztien artean bildutako datuak osatzeko.

Prozesu bera egingo dute bigarren zutabea edota hirugarrena lantzeko ere.

Bigarren zutabea, irudi horiek zer sentiarazten dieten idatzi beharko dute, eta

hirugarrenean, berriz, zer galdera sortzen zaizkien aurreko gogoeta horiek egin ondoren.





### **3. JARDUERA: Elkarrekin partekatuz**

**DENBORA:** 50 minutu

**JARDUERA MOTA:** (lankidetzako ikaskuntza) dominoko galderak

**HELBURUA:**

Ikasgelako taldeetako kideen artean dependentzia-harreman positiboak sustatzea.  
Autonomia sustatzea ikaskuntza-prozesuan.

**MATERIALA**

Errutina-orriak beteta.  
Lankidetzataledeen antolaera


**GARAPENA**

Aurreko saioan betetako errutina-orriak izango dituzte eskuartean haurrek.  
Eskuinean duten taldeari emango diote orria, eta taldeetako bakoitzak egindako galderari erantzuten ahaleginduko dira.

Zehaztutako denbora iragan denean, hurrengo taldeari emango zaio, eta horrelaxe jarraituko da, ahal bada galdera guztiei erantzun arte.

Taldeak bere orria jasotzen duenean, jasotako erantzunez eztabaidatuko dute, eta ondorioak aterako dituzte.





## 4. JARDUERA: Ikertzen

**DENBORA:** 50 minutu

**JARDUERA MOTA:** argazkia, bideoa, horma-irudia

"Rethink Zero" - the Zero Hunger Challenge  
(jarri azpigituluak euskaraz)

### HELBURUA:

Elikadura faltari buruzko gogoeta sustatzea.  
Gure inguruneko pertsonekin enpatia lantzea.

### MATERIALA

"Rethink Zero" bideoa - the Zero Hunger Challenge  
(jarri azpigituluak euskaraz)

Papera eta bolaluma

### GARAPENA


Arreta handiz ikusiko dute bideoa haurrek.  
Gero, galdera hauxe egingo zaie, eta orri birakariaren teknika erabiliz osatu beharko dute erantzuna:

Zergatik dago munduko zenbait tokitan elikagaien falta?

Orri birakaria pasatuko diote elkarri, eta galdera erantzuteko balio duen ideia bat idatziko du bakoitzak.

Elkarrekin, mapa mental bat egingo dute orri birakarian lortutako emaitzarekin, eta orain arte egin diren saiocetan ikasi duten guztia bateratuko dute.





## 5. JARDUERA: Ondorioa

**DENBORA:** 50 minutu

**JARDUERA MOTA:** errezeta

**HELBURUA:**

Inguruneko pertsonekin enpatia sustatzea.  
Irtenbideen bilaketan ikasleak inplikatzeko.  
Sormena sustatzea.  
Elikagaien kontsumo arduratsuz kontzientzia harraraztea.

**MATERIALA**

Kartoi meheak, arkatz markatzaileak, egunkariak, aldizkariak, kola... Material plastiko mota oro.

**GARAPENA**

Errezeta bat egingo du talde bakoitzak, munduan gosea desagerrarazten laguntzeko. Landutako errezetekin, erakusketa bat egingo da ikastetxeko korridoreetan, besteei erakusteko eta elikagaien kontsumo arduratsua egiteak duen garrantzia ikusarazteko guztiei.

